

ENPRESAREN AURKEZPENA

Teknologia medikoan oinarritutako enpresa bat sortzeko bidean gaude, osasun kardiobaskularra babesteko eta monitorizatzeko. Gure helburua prebentzioa eta bihotzaren zaintza eraldatzea da, guztiontzat eskuragarri izango diren konponbide adimendunen bidez.

Gure balio-proposamena bularrera egokitzen den banda elastiko berritzaile baten garapenean oinarritzen da, zeinak denbora errealean funtsezko bihotz-parametroak erregistratzeko eta aztertzeko gai den gailu adimendun bat duen. Azken belaunaldiko adimen artifizialeko sistema bati esker, gure produktuak edozein anomalia esanguratsu zehatz detekta dezake, hala nola arritmia arriskutsuak edo infartu-seinaleak, eta berehalako alertak bidal diezazkieke erabiltzaileari eta osasun-profesionalei.

Sistemak funtsezko bi elementu ditu:

- ★ Sentsore aurreratu bat, bandara eroso akoplatzeko diseinaturia; bihotz-seinaleak erregistratzen ditu eta ahalik eta zehaztasun handienarekin prozesatzen ditu.
- ★ Banda elastikoa, deigarria, ergonomikoa eta garbitzeko erraza, aldizka ordeztuko aukera ematen duena, higieena eta iraunkortasuna ziurtatzeko, erabiltzailearen esperientzia eta lasaitasuna optimizatuz.

Gainera, zinta gehigarriak eta harpidetza-programak eskaintzen ditugu, zerbitzu pertsonalizatuarentako sarbidea ematen dutenak, zaintza medikoaren jarraitutasuna hobetuz eta gure produktua arrisku kardiobaskularrak prebenitzeko irtenbide integral bihurtuz.